

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES
ÁREA DE SANGÜESA/ZANGOZA**

**LURRALDEKAKO BILERAK
ZAGOZALDEA**

SANGÜESA/ZANGOZA, 30 de Octubre de 2016

ZANGOZAN, 2016ko urriaren 30ean

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA.....	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	2
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	10

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Zangozako Vallesantoro Jauregian/ Kultur etxean 2016ko urriaren 3an garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Zangozako lurraldeko bilera 2016ko urriaren 3an garatu zen Vallesantoro Jauregian/ Kultur etxean 17:00 eta 19:10 orduen bitartean.

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 23 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. **Agurra eta ongietorria.**
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena.**
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana.**
5. Talde lanaren **bateratzea.**
6. Amaiera eta agurra.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
ÁNGEL NAVALLAS	AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA / ZANGOZA
MARÍA JESÚS ESQUER DE MIGUEL	AYUNTAMIENTO DE UZTARROZ
LUIS IGNACIO SOLA PÉREZ	ASOCIACIÓN ERMITA DE SAN ZOILO DE CÁSEDA
ROBERTO MATXÍN ITURRIA	AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA / ZANGOZAKO UDALA
AMAIA EKISOAIN GORRIZ	AYUNTAMIENTO DE LIZOAIN-ARRIASGOITI
FLORENTINO AGUAS ARILLA	AYUNTAMIENTO DE PETILLA DE ARAGÓN
BEGOÑA UHALTE SEVILLA	AYUNTAMIENTO DE PETILLA DE ARAGÓN
PEDRO MARTINEZ JUANGO	AYUNTAMIENTO DE URROZ-VILLA
ISABEL AZPIROZ CILBETI	AYUNTAMIENTO DE MONREAL
IGNACIO BARBER	AYUNTAMIENTO DE ESLAVA
MARÍA PÉREZ	CONCEJO ROCAFORTE
JESÚS ESPARZA IRIARTE	AYUNTAMIENTO DE CÁSEDA
ANA JESÚS IRIARTE EQUÍSOAIN	AYUNTAMIENTO DE URRAL ALTO
CARLOS GARCÍA PASCUAL	CEDERNA
CARMEN AEROPAGITA	AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA/ZANGOZA
GABRIELA ORDUNA ALLEGRINI	CEDERNA GARALUR
ALBERTO GOÑI DIEZ	AYUNTAMIENTO DE AIBAR-OIBAR
MARÍA JOSÉ CHALMETA OLASO	AYUNTAMIENTO DE ESLAVA
JAVIER SOLOZABAL AMORENA	GRUPO MUNICIPAL INDEPENDIENTE AISS
MARTA TIEBAS LACASA	GRUPO MUNICIPAL INDEPENDIENTE AISS
RICARDO MURILLO DELFA	AYUNTAMIENTO DE LIEDENA
MARÍA JESÚS MALÓN	ZONGOZAKO TXISTULARI TALDEA "TXOLA"
JOSÉ MARI IRIARTE OJER	ASOCIACIÓN AMIGOS ABAIZ

ANTOLAKUNTZA	
Izen daiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
JAGOBA ESAIN AZKONA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
MARÍA CAMINO BARCENILLA TIRAPU	Dirección General de Cultura

4.-BILERAREN GARAPENA

M^a Camino Barcenillak, bertaratu direnak agurtzen ditu eta Javier Espinosa, EIN Arkitektura eta Hiri Ingenialaritzako, parte-hartze prozesuaren laguntza teknikoko ordezkaria aurkezten du.

Honen ostean, EIN Arkitektura eta Hiri Ingenialaritzako ordezkariak prozesuaren azalpen orokor bat egiten du eta baita parte-hartze dinamikarena ere.

Ondoren, M^a Camino Barcenillak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren laburbilketa azaltzen du.

Honen ostean parte-hartze dinamika azaltzen da eta bertaratutakoak bi taldetan banatzen dira bileraren parte-hartze atalari hasiera emateko.

Azkenik bi taldetan landu izan diren gaien erakusketa egiten da.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

1.- KULTURAK DITUEN BEHARRAK HERRI/ESKUALDE MAILAN

PLANGINTZA

- Zuzendaritza Nagusiaren Plangintzak zonaldeen arteko ezberdintasunak kontuan hartu beharko zituen eta bakoitzerako irizpide zehatzak ezartzea, bakoitzak kulturaren eskuragarritasunak eta beharrak garatzeko behar dutena kontuan hartuz.
- Egunera arte garatutako plangintza ezberdinek ez dituzte oinarritzko helburuen betetzea bermatu ondareari dagokionez, honen babes, baloratzea, etab. Egoera hau batez ere herri mailan nabaria izan da.
- Plangintza burutzerakoan ez da azpiegitura eta baliabide ezberdinen banaketa ekitatiboa kontuan hartu izan eta honek herrien ikusgarritasunaren gutxitzea eragin izan du, garapen mailan, kultura maila, honek dakartzan problematikarekin batera.
- Egitasmoak herri ezberdinen legatua ez du kontuan izan, halanola Ramon y Cajal-en legatua. Hau Madrilan dago eta ahalik eta gehien berreskuratzen saiatu beharko zen, Aragoak jada egiten ari den zer bait
- Diru laguntzek malgutasun handiagoa izan beharko zuten, batez ere herri mailako elkarte eta kultura taldeengana zuzenduta daudenak.

KULTURA BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK

- Herri askotan kultura lantzeko dauden gaitasunak, bai teknikoak, bai ekonomikoak erabat gaindituak daude (ondarearen mantentzea, artxiboak, etab.)
- Eskualdeak turistiko-kulturala den leit-motif jakin bat beharrezkoa du, kultura bisitari zentzu globalagoa eskaini behar diona, produktu batena.
- Potentzial, interes eta aberastasun handiko ondare material eta immaterialak daude zonaldean, baina garapena, turismoa eta kultura batzen dituen ikuspuntu globala garatzeko baliabideak falta dira.
- Jada planifikatuak dauden proiektuak baina garatzeko laguntza ekonomikoa behar duteneztat finantzaketa falta da.
- Giza baliabide teknikoak beharrezkoak diren laguntza eta aholkularitzarako.
- Zonalde honetako herri gehien tamaina txikia da eta hauetan dauden baliabide eta azpiegiturak nahiko eskasak dira, adibidez Liburutegiak.
- Honetaz aparte, Liburutegietako langileekin arazo handia dago, egonkortasun falta nabaria delako, zerbitzu kaskarra eskainiz.
- Herri txikienetan espazioen eskasia nabarmena da, kultur ekitaldiak programatzea asko oztopatzen duen zer bait. Adibidez Petilla de Aragoan zenbait zientzia elkargune antolatu izan dira eta lokalen falta oztopo garrantzitsua izan da.
- Baliabide informatikoekiko eskuragarritasuna, etab. gero eta gehiago teknologia berriak erabiltzen baitira. Zonaldean internet erabiltzeko ahalmenean eskasi nabarmenak daude, berdintasun gabeko egoera sortzen duena.
- Ondarearen egoera, honen kantitatea kontuan izanda, kasu askotan arriskuan dago mantentze lanen falta dela eta.

1.- KULTURAK DITUEN BEHARRAK HERRI/ESKUALDE MAILAN
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nafarroatik kanpo dagoen ondarea berreskuratzea, adibidez Ramon y Cajal-en legatua, Madrilen dagoena eta Nafarroara, zehazki Petillara, ekartzen saiatu beharko zena.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zonaldeko ondare immateriala mantentzeko eta baloratzeko egitasmoak falta direla azpimarratzen da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hain garrantzitsua den zonalde honetako artxibo ondarearen mantentzea eta berreskuratzea. Digitalizazioaren beharra.
HERRIEN ARTEKO KULTURA KOORDINAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baliabideak era eraginkorrean probesteko eskualdeko kohesio eta plangintza koordinatua faltan botatzen da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzu eta programazioa eskualde barruan garatzeko beharra.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura arduradun ezberdinen arteko erlazioa faltan botatzen da, bai tekniko bai politikoak, zonaldeko baliabideak probesteko dituen eskualdeko kultura politika bultzatzeko helburuarekin.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura Zuzendaritza Nagusiarekiko koordinazio gabezia nabari da herri mailan, eskualdeko ikuspuntua duen koordinazioa.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ondasunak kudeatzeko elkarlan falta dago Eliza eta Udaletxeen artean.
PUBLIKOA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritarren parte hartze falta nabari da oro har, herri txikietan egoera nahiko larria izanda.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nafarroako eta bere eskualdeetako kultura ezagutzeko lantzen den egungo hezkuntza politika negargarria da. Zangozako zonaldean irakasle eta maisuen lan baldintzek oztopatzen dute hauek lurraldearekin bat egitea.
PROGRAMAZIOA ETA FORMAKUNTZA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ 400/1000 tankerako programak ez dira zonaldeko beharretara egokitzen, izan ere, zonaldea herriez osatuta dago, hauetako asko 400 herritarretik beherako biztanleria dutelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteei zuzendutako programazio espezifikoaren gabezia.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Programatzeko eta antolatzeko mementoan ez dago Zuzendaritzarekiko elkarlan edota koordinaziorik (datak, beharrak, etab.).
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri mailan ez dago ekintza kultural eta turistikoetan jarduten duten enpresarik.
HEDAPENA ETA INFORMAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zonaldeko baliabide eta aberastasun kulturalak zabaldu eta ikusgarriago egin behar dira (adibidez Rocaforteko pintura erromanikoak).
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zonaldeko kultura baliabideen gaitasun handiko zabaltze plataformetan duten presentzia eskasa da. Arazo larria da hau, egun kultura eta turismoaren arteko erlazioa ezartzeko erabiltzen den tresna baita eta beraz tokiko garapenerako.

1.- KULTURAK DITUEN BEHARRAK HERRI/ESKUALDE MAILAN

ELKARTEAK ETA TALDEAK

- Kultura Zuzendaritza Nagusiak aholkularitza sistema ezartzea beharrezkoa da kultura arloan lan egiten dutenentzat baina euren formakuntza gai ezberdinetarako, hala nola proiektuen gestio eta dinamizazioan edota mezenasgoa lortzean, mugatua dena.
- Kulturen lan egiten duten boluntarioekiko laguntza eta elkarlan handiagoa beharrezkoa da. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik formakuntza eta aholkularitza beharrezkoa da, izan ere, oinarrizko agenteak dira zonaldeko garapen eta mantentze kulturalerako.
- Oro har herri gehienetan elkarteentzat lokalen eskasia nabari da. Baliabide ekonomiak beharrezkoak dira dauden espazioak egokitzeko.

2.- BEHAR HORIEI AURRE EGITEKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAR EGITASMOAK IZAN BEHARKO ZITUEN EKINTZA/PROPOSAMENAK

PLANGINTZA

- Herri zonaldeetako kultura Plangintzak Parte Hartze Prozesuen bitartez burutu beharko ziren, horrela zentzu handiagoa lortuz, interes handiagoa, etab.
- Kultura Plangintzak herrikoitasuna zeharkako erdigunetzat izan beharko zuen.
- Arte eta kulturako elkarte lokalak ez ziren deuseztatu beharko.
- Nafarroak defentsa gazteluak berreskuratzeko Egitasmo baten eraketa.

BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK

- Zonaldea dinamizatzeko motor funtzioa izango zuen Museo bat beharrezkoa da.
- Nafarroako Museo Etnografikoa Zangoza bezalako zonalde batean kokatzea proposatzen da, horrela era ekitatibo batean baliabideak banatuko zirelakoan. Honetaz aparte, espazio garrantzitsuak egokitzeko aukera dago Museo Etnografikoa Zangozan kokatua izan ahal izateko.
- Ramon y Cajal-eko etxe-museoa hobetzea (ikus entzunezko baliabide berriak, etab.)
- Zangozako Eskualdeko eta Aurrepirinioetarako Kultura Koordinatzailearen postua sortzea.
- Zangozako zinema berreskuratzea eta filmak programatzea.
- Mankomunatatutako eskualdeko liburutegia.
- Ondarearen katalogo barri bat burutzea. Vianako Printzearen konpromezua zonaldeko ondasunean lan egiteko.
- Udaletxeetako antolatzaileak aholkatu ditzaketen kultura agenteen poltsa eratzea.
- San Salvador etxearen eraberritzea.

KULTURA PROGRAMAZIOA

- 400 biztanletik beherako herri txikiei zuzendutako kultura programa burutu beharko zen, edota 400/1000 programa egokitzea.
- Eskualdeko kultura agenda eratu beharko zen, epe ertainera, zonaldeko biztanleria mugiarazten saiatzeko.
- Euskarazko ekitaldien programazioa.
- Kultura erakunde garrantzitsuenak, halanola Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, zonaldean presentzia handiagoa beharko zuten, ekitaldiekin, entsegu publikoekin, etab., biztanleriaren eskuragarritasuna baliabide hauekiko handitzeko.

2.- BEHAR HORIEI AURRE EGITEKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAR EGITASMOAK IZAN BEHARKO ZITUEN EKINTZA/PROPOSAMENAK

- Kultur programa urteko garai ezberdinetara luzatzea.
- Zonaldeko elkarte txikien ekitaldiak programatzea (adibidez Errondak) hauei aukerak eskaintzeko.

FORMAKUNTZA, HEDAPENA ETA INFORMAZIOA

- Oro har zonaldean antolatzen diren ekintzen hedapenen, bai barrukoa bai kanpoko, falta nabari da.
- Nafarroako kulturaren informaziorako portal informatiko baten eraketa, eskualdeetako programazioen berezko garrantzia kontuan hartuta.
- Telebista, irrati eta sare sozialen bitartez komunikazio eta hedapen turistiko-kulturalerako programa sortzea, eskualdeko koordinaziotik hasita.

PUBLIKOA/HEZKUNTZA

- Kultura lantzen duen, zehazki Nafarroako kultura lantzen duen ikasgaia izan beharko zen hezkuntza mailan.
- Irakasleriak eskualdeko Kultura Ondarea erabili beharko zuen hezkuntza baliabide gisa. Eskola eta ikastetxeetan eskualdeko kulturaren inguruan hezkuntza ekintzak burutu beharko ziren.
- Gazteentzako kultura programa, kultura gazteengana hurbiltzeko, hauen parte hartzea kontuan hartuz, ikuspuntua, etab.

LURRALDEKOTASUNA ETA KOORDINAZIOA

- Bisita gutxien jasotzen dituzten, baina balio bera duten zonaldeetako baliabideen ikusgarritasuna bultzatzeko programa (Kultura Egitasmoaren barne) eratu beharko zen. Ikusgarritasun hori ikusgarritasun geografikotik hasten da (adibidez Petilla de Aragon).
- Eskualde barruko Koordinaziorako Egitasmoa eta laguntza eta aholkularitza Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik.
- Koordinazio-programazio tresna teknikoa sortu beharko zen, zonalde ezberdinetako koordinaziorako barne egitasmoak eratu ahal izateko

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonei eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.